

2006ko ekainaren 13an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

### EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO MAIATZAREN 2 ETA 16KO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- 2.005EKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 5.- ADUNAKO AGENDA 21EKO DIAGNOSTIKO ETA HELBURUEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 6.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.
- 7.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 8.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 9.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 10.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko ekainak 8.

ALKATEA.

**2.006KO EKAINAK 13.**

**OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.  
Antton Artola Ibareuren.  
Patxi Ormaetxea Otegi.  
Miren Aburuza Alkorta.  
Javier Zabala Zabala.  
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko ekainaren hamahiruko hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:**

**2.006KO MAIATZAREN 2 ETA 16KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak 2006ko maiatzaren 2 eta 16ko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

**BIGARREN PUNTUA:**

**ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunari pabiloi berriko lanak irauten duten bitarterako ura erabiltzeko baimena ematea (85/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Karlos Zabala Iraola Jaunaren izenean dauden SS-10945-VE eta SS-12741-VE matrikuladun ibilgailuen exentzioa onartzea (86/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Aurreko ibilgailuen erreziboak anulatzea eta kantitatea padroitik jeixtea (87/2006 Alkateza Ebazpena).

4.- Luis Maria Zamora Paino Jauna Transportes Paino, S.L.-ren izenean tramitatzen ari zen garraio eta bere osagarrien ihardueraren espedientea artxibatzea (88/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Juan Jose Aburuza Otegi Jaunari sagardotegian egindako etxebizitzaren habitabilitatearen inguruko dokumentazioa aurkezteko errekerimentua jakineraztea (89/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Jokin Izagirre Zabala Jaunari sendibakarreko etxebizitzaren habitabilitatearen inguruko dokumentazioa aurkezteko errekerimentua egitea (90/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Refractarios Kelsen, S.A-ri Belen Industriguneko pabiloietan tramitatzen ari den iharduera espedienteen inguruko errekerimentua jakinaraztea (91/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Casa Ayestaran, S.L.-ri Ibaiondo Industriguneko pabiloietan tramitatzen ari den iharduera espedientearen inguruko errekerimentua jakinaraztea (92/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- 2.006 urteko 1.hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatikoko tasaren errolda onartzea (93/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Aldapa Automatismos, S.L. Zubitxiki Industrigunean tramitatzen ari den iharduera espedientearen Alkatetzaren txosten faboragarria ematea (94/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- UEMA-k Elejiraren kontzeptupean ordainduriko 583,28 €-tako kantitatea itzultzea (95/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Jose Juan Eceiza Iturzaeta Jaunari Adunako 3.alorreko 3.4 B orubean eraikitako etxebizitzaren habitabilitatea baimena ematea (96/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Jose Mari Sarasola eta Miren Genua Jaun/Andereei Adunako U.E.U. 2.3an sendibakarreko etxebizitza eraikitzeko baimena ematea (97/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Construcciones Lantegui, S.A-ri dokumentazioa aurkezteko errekerimentua jakineraztea (98/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Xabier eta M<sup>a</sup> Rosario Tejeria Intxausti Jaun/ Andereek Adunako H.I.B. 3.1-ean bi familiko etxebizitza egiteko aurkezturiko oinarritzko proiektua ez onartzea (99/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- Aragi Bulegoak, S.L-k Adunako H.I.B. 3.1-ean bi familiko bost etxebizitza egiteko aurkezturiko oinarritzko proiektua ez onartzea (100/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Juan Izagirre Uranga Jaunari 3.2 hirigintz exekuziozko unitateari dagozkion urbanizazio obrak bermatzeko jarritako abalaren itzulera (101/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Iñaki Aristeta Zinegotziaren alde Joseba Iñaki Urkola Jauregi eta Aitziber Ibarbia Beloqui Jaun/Andereek burutu nahi duten ezkontza zibila ospatzeko eskuordetza ematea (102/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- Oscar Belasco Jaunari Adunako erroldan baja ematea ofiziozko-baja espedientearen barruan aldeko txostena jaso baino lehen (103/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Caldereria Aburuza,S.L.-ri frontoiko barandan egin beharreko lanak esleitzea (104/2006 Alkatetza Ebazpena).

21.- Jose Maria Tejeria Zabala Jaunaren izenean dagoen NA-0187-AM matrikuladun ibilgailuaren exentzioa onartzea (105/2006 Alkatetza Ebazpena).

22.- Aurreko ibilgailuaren erreziboa anulatzea eta dagokion kantitatea padroitik jeixtea (106/2006 Alkatetza Ebazpena).

23.- Aragi Bulegoak, S.L-k aurkezturiko Adunako Arau Subsidiariarioetako H.I.B. 3.1-eko Hirigintz Proiektuari haserako onarpena ematea (107/2006 Alkatetza Ebazpena).

24.- 2513780383 zenbakia daraman mailegutik 46.536,68 € kantzelatzea (108/2006 Alkatetza Ebazpena).

25.- 2.006ko 1.hiruhileko uraren padroia 1.094,63 eurotako kantitatatean gutxitzea eta erreizibito berri bat egitea (109/2006 Alkatetza Ebazpena).

26.- Asviñenari arte eszenikoen ihardueraren legalizaziorako establezimendua irekitzeko lizentzia ematea (110/2006 Alkatetza Ebazpena).

27.- Eydimen 2000, S.L. enpresa tramitatzen ari den goratze-makinaria erreparatzeko tailerraren espedientearen iharduera baimena ematea (111/2006 Alkatetza Ebazpena).

28.- Amalkor kalean “construcción y montaje de 9 bajantes en INOX” –eko obrak Caldereria Aburuza, S.L.-ri esleitzea (112/2006 Alkatetza Ebazpena).

29.- Adunako Sorospidezko Berrikusketaren Ingurumen gaineko eraginaren baterako ebaluazio azterketaren lana Ekolur-i esleitzea (113/2006 Alkatetza Ebazpena).

30.- Funtzionario eta laboralen lan baldintzak arautuko dituen hitzarmenaren inguruko idatzia (114/2006 Alkatetza Ebazpena).

31.- Daniel Etxarri Lizarribar Jaunari Belkoian bidea, 6 zenbakian zenbait obra egiteko baimena ematea (115/2006 Alkatetza Ebazpena).

32.- Jesus M<sup>a</sup> Gorostidi Astigarraga Jaunari Lardi auzoan duen lursailean itxitura egiteko emandako lizentzian azaltzen ez diren obrei buruzko errekerimentua (116/2006 Alkatetza Ebazpena).

33.- Bernardina Zabala Andereari Adunako Alzarte baserriaren ondoan kokaturik dagoen pareta konpontzeko baimena ematea (117/2006 Alkatetza Ebazpena).

34.- Jose Martin Arregi Arsuaga Jaunari Ozine Txiki etxeko sarrerako atearen ezkerretara leiho txiki bat egiteko baimena ematea (118/2006 Alkatetza Ebazpena).

35.- Dionisio Otegui Goicoechea Jaunari 8062-BTT matrikuladun ibilgailuaren exentzioa onartzea (119/2006 Alkatetza Ebazpena).

36.- Usue, S.A.L.-ri Adunako 3.2 unitateko urbanizazio lanen lehenengo faseko obrak bermatzeko jarritako abalaren itzulera (120/2006 Alkatetza Ebazpena).

37.- Manuel Echaide, S.L.-ri Adunako herriguneko ber-hiritartzeko obrak bermatzeko jarritako abalaren itzulera (121/2006 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:**  
**ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA**  
**URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

**LAUGARREN PUNTUA:**  
**2.005EKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia eman eta indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteaz, jendaurreko erakusketan jarri eta alegaziorik izan ez denez, gai hau botutara jarriaz, Udalbatzak, aho batez, 2005eko Kontu Orokorra onartzea erabaki du.

**BOSTGARREN PUNTUA:**  
**ADUNAKO AGENDA 21EKO DIAGNOSTIKO ETA HELBURUEN ONARPENA,**  
**BIDEZKOA BADA.**

Udalbatzak, aho batez, 2.006ko maiatzean definitiboki erredaktaturiko Adunako Tokiko Agenda 21eko Iraunkortasunaren aldeko diagnostiko eta helburuak onartzea erabaki du.

**SEIGARREN PUNTUA:**  
**ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- Alkateak eskubide zibil eta politikoen defentsan EPAIKETAK GUZTIAK ETEN-en inguruan Aiztondoko Ezker Abertzaleak 2.006ko ekainaren 2an aurkezturiko mozioaren berri ematen du. Gaia aztertu eta botutara jarri eta Idazkariak egindako txostena kontuan izan ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

1.- Udal honek Eskubide Zibil eta Politikoen aldeko jarrera aktiboa izateko konpromisoa hartzen du.

2.- Udal honek 18/98 eta bestelako sumarioen izaera politikoa salatzen du.

3.- Aurreko zioa kontuan izanda, udal instituzio honek 18/98+ makro epaiketa hauek bertan behera uztea eskatuko dio Estatu Espainolari, eta onartutako ebazpen hau helaraziko die Espainiako eragile politiko eta judizialei.

4.- Epaiketa politiko hauek bake eta normalizaziorako oztopoak bilakatzen diren heinean, udal honek epaiketa hauen kontrako jarrera, konponbidearen aldeko jarrera aktibatzea dela ulertzen du, eta beraz, udal instituzio honek Audientzia Nazionala den epaiketa berezia desegitearen alde azaltzen da.

5.- Bailara honetan auziperatuta dauden NEKANE TXAPARTEGIri, MIKEL EGIBARI eta JOSE M<sup>a</sup> OLARRARI, gure giza babesa eta elkartasuna eskaintzeaz gain, makro-epaiketa honek sortarazten dien gastuei aurre egiteko Udaletxeak parte hartzea.

6.- Udal honek babesa ematen dio, ekainaren 17an ospatuko den manifestaldiari.

7.- Bertara, herritarrak bando bidez deitzeko konpromezua hartzen duelarik, bai eta, egun osoan zehar egingo diren ekintzetan parte hartzera animatuaz.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:**  
**ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Ikusirik Luis Galarragak II Hitza Tolosaldea txapelketa antolatzeke 500 eurotako dirulaguntza eskaera aurkeztu duela, Udalbatzak, aho batez, aipaturiko dirulaguntza ematea erabaki du.

2.- Ikusirik Mikel Elola, Lier Etxeberria eta Garikoitz Garin-ek Gipuzkoako Pala Txapelketan parte hartzeke 127 eurotako dirulaguntza eskaera aurkeztu dutela, Udalbatzak, aho batez, aipaturiko dirulaguntza ematea erabaki du.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:**  
**ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Loatzo musika eskolak Udalak 2.006 .urtean egin beharreko aurrekontuaren %50eko ekarpenaren inguruan aurkezturiko 5.836,45 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ekarpenaren zati hau ordaintzea erabaki du.

2.- Tolosaldea Garatzen-ek 2.006 urteko gastuei aurre egiteko aurkezturiko 6.730,00 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, idatzia onartzea erabaki du.

3.- Soroa Arquitectos-ek Adunako Arau Subsidiarioen Berrazterpenaren bigarren haserako onarpenaren inguruan aurkezturiko 12.090,00 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

4.- ULAHI, S.A-k Uztartza Aterpetxeko igogailuaren 2.003 urtetik 2.006 urtera bitarteko gastuen inguruan aurkezturiko 3.913,62 €-tako faktura aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen

du.